




Nafarroako mugikortasun elektrikoa sustatzeko agenda

Agenda de impulso a la movilidad eléctrica en Navarra

AURKIBIDEA

1. Kontseilariaren agurra	04
2. Mugikortasun elektrikoaren esparrua	06
Europako testuingurua	06
Nafarroako testuingurua	07
Mugikortasun jasangarriaren onurak Nafarroan	09
3. Botila-lepoen diagnostikoa	10
4. Nafarroan mugikortasun berdea lortzeko asmoa	11
Helburu orokorra eta berariazko helburuak	11
Adierazleak	11
5. Jarduketen definizioa	14
6. Agendako jarduketak, botila-lepoen arabera	38
7. Kronograma	40
8. Finantzaketa	42
9. Gobernantza	44
10. Erreferentziak	45
11. Laguntzaileak	46



Automobilgintzaren ezinbesteko eraldatze eta digitalizazioa bultzatuz

Automobilgintza EBko lehen industria-sektorea da. Lana ematen die 14 milioi europarri; hau da, EBko enplegu guztiaren % 6,1 suposatzen du. Horrez gain, 2,1 milioi pertsonak ibilgailu motordunen zuzeneko fabrikazioan lan egiten dute eta, horrek, EBko manufaktura-industriaren enpleguaren % 8,5 suposatzen du. Estrategia orokorrari dagokionez, EBren xedea automobilgintzaren sektorerako da ibilgailuentzako barne merkatu bat sortzea, ingurumenaren babes- eta segurtasun-maila altua bermatzea, lehiakortasuna indartzea eta lehia-baldintza zuzenak eta egonkorak ezartzea industriarako.

Nafarroari dagokionez, sektoreak 120 enpresa inguru ditu, bere negozio-bolumena 5,1 bilioi eurokoa da, eta enplegu zuzena eskaintzen die 12.000 pertsonari. S4 Espezializazio Adimendunaren Estrategia Berriak adierazten duen bezalaxe, Nafarroa lider da mugikortasun elektriko eta konektatu baterako sistema berrien ekoi-zpenean, balio-kate jasangarri baten bitartez, energia berriztagarrien arloan duen ahalmena integratuz, eta esperimenezko eskualde berritzailea izendatua izan da. Energia-indar fosilekiko dugun mendekotasunarekin amaitzea da xedea.

2022. U Ibilgailu Elektrikoaren eta Konektatuaren PERTEa jarriko da abian. Horrek 4.300 M €-ko inbertsioa aurreikusten du ibilgailu elektrikoak eta konektatuak garatu eta fabrikatzeko beharrezkoa den ekosistema sortzeari begira. Zentzu horretan, Nafarroako ekosistema oso ondo egituratuta dago. Mende-erdi luzeko ibilbidearekin, gure enpresa-ehuna egokiro antolatuta dago ACAN bezalako automobilgintzako kluster baten inguruan. Azken hau funtsezko dinamizatzaile eta solaskide bilakatu da.

Ibilgailu elektriko eta konektaturanzko trantsizioa prozesu hori erraztuko duten pizgarriekin babestu beharra dago. Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuak Moves III plana kudeatzen du, zeinak 5,5 milioi euro baino gehiago bideratu dituen laguntza-lerro zuzetan, ibilgailu elektrikoak erosi eta kargatze-azpiegiturak instalatzeko.

Horrez gain, Nafarroan mugikortasun jasangarria sustatzeko xedearekin Foru Gobernuak kenkari fiskal esanguratsuak ezarri ditu ibilgailu elektrikoetan eta karga-sistemetan egindako inbertsioetarako. Izan ere, ondoko kenketak aurreikusi ditu Nafarroak enpresa zein partikularrentzat: % 30 ibilgailu elektrikoaren prezioarekiko, % 5 ibilgailua hibrido entxufagarria bada eta % 15-25 bitarteko kenketa kargaguneak instalatzeagatik.

Mugikortasun elektrikorako eraldaketa gure ekoi-zpen-prozesuen digitalizazioari lotuta dago ezinbestean eta, gehienbat, 4.0 industriaren hiru habeei: sentoreei, robotei eta adimen artifizialari. Zentzu horretan, Nafarroako Gobernuak hainbat babes-politika garatu ditu: 4.0 Ibilbideak, 4.0 Industria Konektatua edo Datu Zientziako Laborategia programak, besteren artean. Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloa bultzatzea funtsezkoa izango da, Nafarroako enpresa eta ETEen digitalizazio-politiken koordinazio-ardatz bilaka dadin.

Nafarroako Gobernua, halaber, berrikuntza sustatzen ari da sektore honetan NAVEAC ibilgailu elektriko, autonomo eta konektatuari (React-Euko 4,5 M€) loturiko ekonomiaranzko eraldaketa bultzatuz. Proiektu hori Naitec teknologia-zentroak eta Sodenak koordinatzen dute, beste industria-eragile batzuekin batera, industria-sektorearen ahalmenak orientatzeko helburuarekin, bai produktuari bai prozesuari dagokionez. Halaber, beste hainbat ekimen sustatu ditu, hala nola Nafarroako kargaguneen bisorea. Aipatuak komunitate osoan dauden ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak kontsultatzea

ahalbidetzen du eta Nafarroako energia-fluxuak azaltzen ditu, ekoizpenetik kontsumoraino.

Laburbilduz, automobilgintzaren ezinbesteko eraldaketa zeharka babesten dituzten ekimen ugari, Nafarroa erreferentzia izan dadin datozen hamarkadetan ere.



MIKEL IRUJO AMEZAGA,
EKONOMIAREN ETA ENPRESAREN GARAPENKO SAILBURUA

2. Mugikortasun elektrikoaren esparrua

> Europako testuingurua

Mugikortasuna eta garraioa funtsezkoak dira enpresentzat eta Europar Batasuneko merkatu bakarraren garapen ekonomikorako

► European, garraioak (hegazkinak eta itsasoko garraioa barne) berotegi-efektuko gasen **emisioen % 25** inguru suposatzen du. Horrez gain, atmosfera-kutsaduraren zio nagusia da hirietan, horrek herritarren osasunerako eta ongizaterako dakartzan kalteekin.

► 2020. urtean, pandemiaren ondorioz, garraioaren emisioak % 12,7 murriztu baziren ere, errebote-efektu esanguratsua ikusten ari gara egun.

► 2050erako klimatikoki neutroa izango den Batasun baten alde lan egiten du Europar Batasunak. Hone-la, 2019ko abenduan Batzordeak Europako Itun Berdeari buruzko Komunikazioa onartu zuen. Horrek garraioaren arloko berotegi-efektuko emisioak % 90ean gutxitzea eskatzen du.

► 2020ko “Europako anbizio klimatikoa 2030erako areagotzea” izeneko Komunikazioak dio erregai alternatiboentzako azpiegiturentzako tokiko zein eskala handiko planetan ikuspegi holistikoa aplikatzea dela egokiena. Komunikazio horrek berak la emisiorik gabeko ibilgailu-parke baterantzko trantsizioa proposatzen du hemendik 2050era arte. Halaber, 2020ko abenduko “Mugikortasun Jasangarri eta Adimendurako Estrategia” dokumentuak eraldatze hori Batasuneko garraio-sisteman lortzeko oinarriak zehazten ditu eta mugarri zehatzak jarri ditu garraio-sistema etorkizun adimendun eta jasangarri baterantz eramanez ahal izateko.

► Erregai berriztagarrien ezarpen eta erabilerari dago-kionez bilatzen den handitze horrekin batera egokiro antolatu eta orekatutako karga-azpiegitura zabal bat garatu beharko da. **Ibilgailuak kargatzeko berme guztiak dituztenean baino ez dituzte kontsumitzaileek emisiorik gabeko ibilgailuak erosiko.**

► Europar Batasuneko **Fit for 55** lege-proposamenen multzoak neurri zehatzak aurreikusten ditu EBko legeria berritu eta eguneratzeko eta berotegi-efektuko gasen emisio garbiak % 55ean murrizteko, gutxienez, 2030. urterako. Proposamen sorta horren nahia da **esparru koherente eta orekatua eskaintzea Batasunaren klima-helburuak lortzeko**, gizarte-mailan bidezkoa eta zintzoa den trantsizio bat bermatuz, EBko industriaren berrikuntza eta lehiakortasuna mantenduz eta indartuz eta, aldi berean, baldintza-berdintasuna bermatuz Batasunetik kanpoko herrialdeetako ekonomia-operadoreen aurrean eta klima-aldaketaren aurkako mundu-mailako borrokan EBk duen lidergo-posizioa sendotuz.

► Fit for 55 estrategiak dio estatu kideek sarbide publikoko karga-estazioen ezarpena bermatu beharko dutela eta estazio horien kopuruak herrialdean dauden ibilgailu elektriko arinen bolumenarekiko proportzionala izan beharko duela eta ahalmen nahikoa izan beharko duela ibilgailu horiek kargatzeko. Era berean, estatu kideek ibilgailu horiek xede dituen sarbide publikoko gutxieneko karga-azpiegitura bat bermatu beharko dute beren lurraldeko **Europa zeharreko garraio-sarean, kargagune bat jarritz 60 km-ro.**

> Nafarroako testuingurua

Nafarroak Europak baino asmo handiagoa

► Garraioa jatorri duten **berotegi-efektuko gasen emisioek** Europakoan antzeko balioak agertzen dituzte, hau da, **% 23**.

► **Europatik markatu diren helburuak baino asmo handiagokoak diren beste batzuk zehaztu ditu Nafarroak**. 2018an dagoeneko klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Ibilbide-orria zehaztu zen (KLINA), Nafarroan 2050. urteari begirako ingurumen-estrategia bat ezartzeko beharrari erantzunez. Karbono gutxiko ekonomia baterako zehaztutako helburuak ondokoak dira: % 40 2030erako, % 60 2040erako eta % 80 2050erako. Helburu horiek lortzeko, 25 jarduketa-lehro eta 63 neurri zehaztu dira.

► **NaVEAC plataforma** 2018an sortu zen. NaVEAC ekimenaren xedea da erkidegoaren industria-gaitasunak garatzea ibilgailu elektriko, autonomo eta konektatuaren inguruan, bai eta mugikortasun-soluzio berrien garapena eta ezarpena bultzatzea Nafarroan. Bere jarduketak 4 arlo handitan egituratu dira: Mugikortasun jasangarria, Karga-azpiegiturak, Industria-abaguneak ibilgailuetan eta Lurralde Aitzindaria.

► Halaber, **2030erako Nafarroako Energia Planak** energia berriztagarrien eta energiaren arrazoizko erabilera baten aldeko apustua egin du. Plana, aurreikusi bezala, berrikuspen-prozesuan dago eta bere lan-arloetako bat mugikortasuna eta garraioa da. Garraioaren arloan energia berriztagarriak erabiltzeari dagokionez helburu zehatzak zehaztu ditu: sektore honetako emisioak gutxitzea eta 22 kW-rainoko 200 kargagune publiko instalatzea 2030. urterako. Eta po-

tentzia handiko (22 kW baino gehiago) 20 kargagune publiko instalatzea urte berdinerako.

► Nafarroak, halaber, **2018-2030 Mugikortasun Plan Zuzentzailea** garatu du. Bere xedea da mugikortasunari eta garraioari loturiko politika zehaztea 2030era arte. Bilatutako helburuen artean daude ibilgailuen erabilera murriztea, beren erabilera eraginkorragoa bultzatzea eta gutxiago kutsatzen duten erregaien erabilera sustatzea.

► Nafarroak, halaber, **Nafarroako Foru Komunitateko Helburuen Jasangarritasun Turistikorako Lurralde Plana** osatu du, jasangarritasun eta irisgarritasuneko ekintzak bilduz. Planaren xedea da turismo-eredua eraldatzea bere jasangarritasuna eta modernizazioa indartu eta, aldi berean, bere lehiakortasuna mantenduz. Mugikortasuna ardatz garrantzitsua da eta energia-efizientzia, berrikuntza eta trantsizio ekologikoa sustatzen dira erkidegoko turismorako.

► Plan horiek guztiek (eta hemen berariaz aipatu ez ditugun beste batzuek) lurraldearen produktibitatea bultzatzen duten lehiakortasun-faktoreetan eragiten dute eta **Nafarroako jasangarritasunerako S4 espezializazio adimendunaren estrategia berrian** bilduta daude. 2021. urtearen amaieran onarturiko estrategia horren xedea da eraldaketa ekonomikoa bultzatzea hazkunde jasangarri eta inklusiboko eredu baterantz. Estrategia horren barruan sei lehentasun bertikal zehaztu dira eta horien artean dago mugikortasun elektriko eta konektatua eta energia berdearen industria, trantsizio ekologikoa eta trantsizio digitala zeharkakoek lotzen dituztenak.



> Mugikortasun jasangarriaren onurak Nafarroan

Nafarroarentzat lehentasunezkoak diren bi sektoreen bilakaera paraleloa: automobilgintza eta energia berriztagarriak.

- Mugikortasun jasangarri bat ezartzeak hainbat **onura dakartza ingurumenerako eta pertsonentzat**, eta murriztu egiten du mugikortasunaren ingurumen-inpaktua. Kasurik txarreanean ere, eta bizi-ziklo osoa kontuan hartuta, Europako ibilgailu elektrikoen emisioak diesel eta gasolinako autoenak baino %22-28 txikiagoak dira. Horren ondorioz, airearen kalitatea eta herritarren osasuna eta ongizatea hobekiago dira.
- Gainera, ibilgailu elektrikoaren motorra guztiz isila da. Hori dela eta, kutsadura akustikoa nabarmen murrizten da, eta erabiltzaileen eta, oro har, herritarren erosotasuna handiagoa da.
- Nafarroan, automobilgintzaren sektorea bigarren industria-sektorerik garrantzitsuenak da, eta 120 enpresak baino gehiagok 13.000 lanpostu inguru sortu dituzte. Mugikortasun elektrikoa era horretan bultzatuta, erraztu egiten da industria horrek ibilgailu elektrikoera egin beharreko trantsizioa.
- Horrez gain, karga-azpiegituraren sarea eskualdeko beste indarretako batekin uztartzen da, hots, energia berdearen industriarekin. Industria horrek zuzenean 5.700 enplegu eta 110 enpresa biltzen ditu. 2020ko Nafarroako Energia Balantzeko datuen arabera, energia elektrikoaren % 72,94 berriztagarria da Nafarroan.

► Gure karga-sareak bi sektore horien hibridazioa bultzatuko du, eta Nafarroarentzat lehentasunezkoak diren bi sektoreen (automobilgintzaren eta energia berriztagarrien) bilakaera paraleloa ahalbidetuko du.

► **Lurralde-kohesioa** Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsen xede gisa ezarri dituen lerro estrategikoetako bat da. Mugikortasun elektrikoa horrela bultzatuta (**kargagailu bat egongo da 50 km-ko**), mugikortasun jasangarrirako trantsizioan parte hartzen duten agente aktibo sentituko dira pertsona guztiak.

► Agendaren beste ekintza-ardatzetako bat eskualdea landa-turismo jasangarriaren eskaintzagatik nabarmentzean datza. Ildo horretan, agendan zehaztutako ekintzetatik abiatuta, **oso karbono-aztarna txikiko turismo** bat egitea ahalbidetuko duten turismo-produktuak sortuko dira.

► Jakina, mugikortasun jasangarria bultzatzeak lanpostu kualifikatueterako profil berriak sortuko ditu puntako sektore batean, eta lagungarria izango da eskualdeko jasangarritasunerako trantsizioan.

3. Botila-lepoen diagnostikoa

Identifikatutako botila-lepoak



EROSTEKO ERABAKIA

- Ibilgailu elektrikoaren prezioa
- Elektrizitatearen kostuaren ezegonkortasuna
- Ziurgabetasunaren pertzepzioa kargatzean: autonomia-antsietatea



KARGA-SAREAREN ERABILGARRITASUNA

- Aplikazioen elkarreragingarritasuna: aktibazioa eta ordainketak
- Karga-sarearen fidagarritasuna
- Kargari buruzko informazioaren eskuragarritasuna



ADMINISTRAZIO-OZTOPOAK

- Administrazioak eta banaketa-enpresa elektrikoek instalazioa abian jartze-ko epeak betetzea
- Dauden kargagune batzuei erabilera erdipublikoa emateko aukera

4. Nafarroan mugikortasun elektriko berdea lortzeko asmoa

- > Helburu orokorra eta berariazko helburuak
- > Adierazleak

Nafarroan mugikortasun elektrikoari emandako bultzada:
Ibilgailu elektrikoaren erabilera jasangarriagatik eta 2024rako karga-azpiegi-tura fidagarri, puntako eta kohesiboagatik ospea jaso duen eskualdea

► OE1. Ibilgailu elektrikoa merkatuan sartzea

Ibilgailu elektrikoa publiko orokorrarengan neurri handiagoan sartzea, enpresetan mugikortasun-planak diseinatzea eta flota elektrikoak ezartzea

► OE2. Erabilera publikoko karga-azpiegitura kohesibo eta fidagarri bat zabaltzea

Nafarroako karga-sarea modu orekatuan banatuta dago lurralde osoan, eta fidagarritasunagatik eta erabiltzeko erraztasunagatik nabarmentzen da

► OE3. Nafarroan oso karbono-aztarna txikiko turismoa eskaintzea

2024. urtean, zero emisioko ibilgailuekin egin ahal izango dira turismo-bidaiak eskualdean zehar

► OE4. Nafarroako karga-azpiegituraren sare enblematikoa

Nafarroa eta bertako berrikuntza-agentek ospetsuak dira beren proiektu erakusleengatik

Adierazleak: 2024ra arteko aurrerapena neurtzeko helburuak

OE1. Ibilgailu ele- ktrikoa merkatuan sartzea • Matrikulatutako ibil- gailu elektrikoak: % 10 - Elektriko hutsak: % 4 - Hibrido entxufagarriak: % 6 • Mugikortasun-planak dituzten 100 langiletik gorako enpresak: % 10 • Sektoreko publikoko flotaren % 5 elektrikoa da, eta ordeztutako ibil- gailu arinen % 100 zero emisiokoak edo emisio neutrokoak dira • Kargagune guztiak bilduko dituen bisore baten mantentze egu- neratua	OE2. Erabilera publikoko kar- ga-azpiegitura ko- hesibo eta fidagarri bat zabaltzea • Erabilera publikoko 250 kargaguneko sare bat osatzea (ikus taula) • Kargagune bat 50 km-ko; 38 kargagune 100.000 biztanleko • Nafarroako Gobernuak kudeatutako kargagai- luen % 95eko erabilga- rritasuna (orduak) • Kargagune publikoen % 95 24/7/365 zerbit- zuaren bidez kudeatzea	OE3. Nafarroan oso karbono-aztarna txikiko turismoa eskaintzea • Nafarroako 15 leku turistiko nagusitan kar- gaguneak instalatu eta mantentzea • Ibilgailu elektrikoetan egiteko 5 turismo-ibilbi- de zehaztu, implementa- tu eta zabaltzea	OE4. Nafarroako karga-azpiegitura- ren sare enblema- tikoa • I+G+Bko 5 partzuer- go proiektu pilotuetan parte • hartzea 2 proiektu erakusle implementat- zea • Proiektuak inplemen- tatzeko eskualdeko, Es- tatuko eta Europako I+G finantzaketa erakartzea
--	---	---	---


Agendako helburuak, adierazleak eta jarduketak ibilgailu elektriko arinei dagozkie
Adierazle garrantzitsuak Nafarroako Energia Planaren (2030) berrikuspenean jasoko dira

2024ra arteko aurrerapena neurtzeko adierazleak

OE2. Erabilera publikoko karga-azpiegitura kohesibo eta fidagarri bat zabaltzea

LAP	Egungo egoera	2024an guztira	<22 kW	22 - 50 kW	50 - 150 kW	150 - 250 kW	> 250 kW
Pirinioak	4	11	4	5	1	-	-
Nafarroa Atlantikoa	10	144	57	70	11	-	-
Erdialdea	79	18	7	9	-	-	-
Erdialdeko ere- muak	13	29	12	14	2	2	1
Ebroko ardatza	21	48	19	23	4	-	1
Atxiki gabeko lu- rraldeak	1	-	-	-	-	-	-
Guztira	127	250	100	121	19	2	2



Kargagune publikoak 100.000 biztanleko



Iturria: European Alternative Fuels Observatory-ko datuetan oinarrituta landu da

5. Jarduketen definizioa

Jarduketen ikuspegi orokorra

OE1. Ibilgailu elektrikoa sartzea ▶ EROSTEKO ERABAKIA OE1.A1. Ibilgailu elektrikoa eta kargagailuak erosteko laguntza eta kenkari fiskalak OE1.A2. Ibilgailu elektrikoaren inguruan kontzientziatzea OE1.A3. Mugikortasun-planak enpresetan ▶ ESPERIENTZIA POSITIBOA - ERABILGARRITASUNA OE1.A4. Kargaguneak mapan kokatzea OE1.A5. Open Data zerbitzua: kargagailuen egoerari buruzko informazio eguneratua OE1.A6. Toki-erakundeen kargaguneak era koordinatuan kudeatzea 	OE2. Erabilera publikoko karga-azpiegitura kohesibo eta fidagarri bat zabaltzea ▶ EREMU ZURIETAKO JARDUKETAK OE2.A1. Eremu zurietan inplementatzea OE2.A2. Toki-erakundeen dinamizazioa ▶ ADMINISTRAZIO-OZTOPOAK OE2.A3. Administrazio-izapideen epeak murriztea ▶ ERABILERA ERDIPUBLIKOA OE2.A4. Kargagailu erdipublikoak bultzatzea 	OE3. Nafarroan oso karbono-aztarna txikiko turismoa eskaintzea OE3.A1. Leku turistikoetan kargatzeko aukera OE3.A2. Oso emisio gutxiko turismo-ibilbideak 	OE4. Nafarroako karga-azpiegituraren sare enblematikoa OE4.A1. I+C+Bko eskualde-agenteen dinamizazioa OE4.A2. Proiektu pilotuak ezartzea 
---	--	---	--

OE1. Ibilgailu elektrikoa merkatuan sartzea

- ▶ Ibilgailuen eskaintza mugatuaren antzinako oztopoa bizkor ari da murrizten, auto-fabrikatzaile gehienek baitituzte dagoeneko modelo elektrikoak. Horren ondorioz, ibilgailu elektrikoen kopurua eta barietatea gero eta handiagoak dira Espainian, eta, bereziki, Nafarroan. 2021. urtean, matrikulatutako ibilgailu elektrikoak % 68 gehiago izan ziren, eta ibilgailu hibridoak, berriz, % 53 gehiago (IEAk landutako datuak, DGTK emandako informazioan oinarrituta).
- ▶ Ibilgailu elektrikoen kopurua bezala, hibrido entxufagarrien proportzioa gora egiten ari da, hibridoek CO².emititzen badute ere.
- ▶ **Salmenta-prezioak, karga-azpiegiturarik ezak eragindako kezkak** (tarteko antsietate edo autonomia-antsietate esaten zaionak) edo **elektrizitatearen kostuak** ibilgailu elektrikoa erostea baldintzatu dezakete, baita erabilgarritasunaren pertzepzioak eta administrazio-oztopo jakin batzuek ere.

OE1. Ibilgailu elektrikoa sartzea

▶ EROSTEKO ERABAKIA

OE1.A1. Ibilgailu elektrikoa eta kargagailuak erosteko laguntza eta kenkari fiskalak

OE1.A2. Ibilgailu elektrikoaren inguruan kontzientziaztea


OE1.A3. Mugikortasun-planak enpresetan

▶ ESPERIENTZIA POSITIBOA - ERABILGARRITASUNA

OE1.A4. Kargaguneak mapan kokatzea

OE1.A5. Open Data zerbitzua: kargagailuen egoerari buruzko informazio eguneratua

OE1.A6. Toki-erakundeek kargaguneak era koordinatuan kudeatzea



▶ EROSTEKO ERABAKIA

- ▶ Gasolio edo gasolinako ibilgailu batekin alderatuta, ibilgailu elektrikoaren salmenta-prezioa handiagoa da, baterien kostuagatik nagusiki. Hala ere, bilakaera teknologikoa eta munduan lortzen ari den hedapena kontuan hartuta aurreikus daitekeenez, arazo hori gainditu egingo da datozen urteetan. Bloomberg-NEF-ek berriki egindako azterlan batek iragarri duenez, auto elektrikoak produzitzea gasolio edo gasolinako motorra duten ibilgailuak produzitzea baino merkeagoa izango da 2027. urtean, baterien prezioak behera egingo duelako eta produkzio-lerro espezifikoa eskuragarri egongo direlako nagusiki. Horrez gain, ibilgailu elektrikoek mantentze-kostu txikiagoak dituzte, oso erraz gidatzen dira (automatikoak direlako) eta errekontzakoak baino efizienteagoak dira.
- ▶ Nafarroak ibilgailu elektrikoa erosteko eta flota berritzeko hainbat finantza-laguntza (MOVES programa) eta kenkari fiskalak inplementatu ditu. Ildo horretan, ibilgailu elektrikoek ez dute matrikulazio-zerga ordaintzen, ibilgailuen emisioen arabera ordaintzen baita. Askotan, ibilgailu elektrikoa doan aparkatu daiteke eremu urdinean, eta bidesari batzuk ere doakoak izango dira.

- ▶ Merkatu elektrikoak bizi duen ezegonkortasunak zaildu egin du inbertsioaren errentagarritasunaren inguruko kalkuluak eta gasolio edo gasolinako ibilgailuekiko konparazioa egitea. Horrek erosteko asmoa kendu dezake askotan. Soluzio bat etorkizunean argiaren kostua aurrezteko aukera emango duten sistema fotovoltaikoak eta biltegiatze-sistemak gaineratzea izan daiteke. Gainera, metatzeko sistemak erabiltzeak puntako sorkuntzak eta eskariak xurgatzea ahalbidetzen du. Zentzuzko karga baterako energia-kudeaketako sistemak erabiltzeak, halaber, puntako eskariak txikiagotzea ahalbidetzen du, karga-kostu txikiagoak eragiten ditu eta ibilgailu elektrikoen karga berdea sustatzen du.
- ▶ Trantsizio-garai honetan, administrazio publikoei dagokie erosteko erabakia hartzen laguntzea, ibilgailu elektrikoa ezartzeko. Izan ere, ezinbestekoa da ingurumen-helburuak lortzeko eta industrian eskala-ekonomiak sortzen laguntzeko.

► **OE1.A1. Ibilgailu elektrikoa erosteko laguntzak eta kenkari fiskalak**


Ekintzaren izena Laguntza eta kenkari fiskalak hobetzea	Egungo egoera:		
Laburpena Ibilgailurako eta azpiegiturarako laguntza eta kenkari fiskalak aztertu, egokitu eta koordinatzea: · MOVES laguntzak · Flota publiko eta pribatuak berritzeko laguntzak · Kenkari fiskalak · Doako aparkaleku eta bidesariak · Erregai gisa erabiltzeko elektrizitatearen karguen salbuespena kargagune publikoetan			
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak	· Nafarroako Zerga Ogasuna · Iruñeko Mankomunitatea · Nafarroako parke mugikorra	
Kronograma Jarraitua Agendak dirauen aldian			

► **OE1.A2. Ibilgailu elektrikoaren inguruan kontzientziaztea**

Ekintzaren izena Ibilgailu elektrikoaren inguruan kontzientziazteko kanpaina	Egungo egoera:
Laburpena · Jendea sentibilizatzeko, erabiltzaileengan kontsumo ohitura berriak sustatzeko, informazio orokorra eta sustapen-neurriei buruzkoa barnean hartuta · Instalatzaile elektrikoak garajeetako instalazioetarako prestatzea, elektrikarien elkarten bitartez · Finka-administratzaileak auzotarren eskariak kudeatzen jakiteko prestatzea, administratzaileen elkargoen bitartez · Kontzesionarioetako komertzialei ibilgailu elektrikoaren kargari eta dauden pizgarriei buruzko informazioa banatzea · Toki erakundeek eta jendeak karga-azpiegitura eskuratzeko gidak sortzea	
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak · NUKF
Kronograma Agendaren bultzada eta funtsezko beste mugarri batzuk baliatuta	

► **OE1.A3. Mugikortasun-planak enpresetan**


Ekintzaren izena Enpresetan mugikortasun-planak inplementatzea	Egungo egoera: ● ○ ○ ○ ○	
Laburpena · Enpresak langileentzako mugikortasun-planak ezartzeko sentsibilizatu eta prestatzea, kargaguneen instalazioa eta flotak elektriko bihurtzea barnean hartuta · Sektorekako jardunbide egokiak detektatzea eta arin ezartzeko erabilera-kasuak biltzen dituen gida bat prestatzea · Enpresetako mugikortasun jasangarriari lotutako proiektu pilotuak · Mugikortasun jasangarriko jardunbide egokiak dituzten Nafarroako enpresei agerikotasuna ematea · 100 langiletik gorako enpresen egoera aztertzea eta mugikortasun-planak ezartzeko jardunbide egokiei buruzko gida bat egitea		
Arduraduna CEN	Entitate laguntzaileak	· ACAN · Enercluster · CAT · NUKF
Kronograma Kanpainaren diseinua 2022ko irailera arte. 6 hilabetetan egikarituko da		



► **ESPERIENTZIA POSITIBOA - ERABILGARRITASUNA**

- Ibilgailu elektrikoan bidaia-esperientzia positibo bat ziurtatzea erabakigarria da, oihartzun handia baitu iritzi publikoan. Horretarako, garrantzitsua da erabiltzailea mugikortasun elektrikoaren alderdi guztien erdian kokatzea.
- Erabiltzailearentzat, funtsezkoa da kontsulta-plataformetan agertzen diren kargaguneen kokapenari eta erabilgarritasunari buruzko informazioa eta operadoreek erabiltzaileei ematen dieten 24/7/365 arreta-zerbitzua erreala izatea.
- Esperientziari dagokionez baloraziorik negatiboena jaso duten alderdien artean, honako hauek daude:
 - Hainbat app-tan alta eman beharra, sistema osagarrien eskakizuna (hala nola RFID txartelak edo SMS bidezko berrespena) edota karga bat hasteko kontratu bat sinatu beharra.
 - Operadore bakoitzaren karga-prezioei buruzko aldez aurreko informaziorik eza. Gainera, ad hoc egindako kargaren kostua eta kontratu-harremanetan oinarritutako tarifena desberdinak dira.
 - Ordaintzeko moduaren arabera (txartela, PayPal edo beste ordainketa-baliabide batzuk), tarifak desberdinak izan daitezke.

► Nafarroako Gobernuaren energia-trantsizioko atari aitzindariaren barruan, Nafarroan ibilgailu elektrikoetarako dauden kargaguneak kontsultatu daitezke. Bisore hori atari bizia da, kargaguneei buruzko informazioa eguneratuta edukitzen du, eta datu horiek hirugarrenek erabiltzeko Open Data zerbitzu bat eskaintzen du.



► **OE1.A4. Kargaguneak mapan kokatzea**

Ekintzaren izena Nafarroako kargaguneen bisorea garatu eta mantentzea	Egungo egoera: ● ○ ○ ○ ○
Laburpena Nafarroako Gobernuak garatutako bisorea Nafarroan kargatutako energiaren kokapen, egoera eta motari buruzko informazio fidagarria eta denbora errealekoa zentralizatzeko ataria izateko asmoarekin sortu da, baita informazio hori hirugarrenei emateko hornitzailea izateko asmoarekin ere. Eskualdeko erabilera publikoko kargagune bakoitzaren informazio-eremuak eguneratzea, honako hauek adierazita: · Konektore / potentzia mota · Erabiltzeko ordutegia · Egoera: abian ala ez · Erabilgarritasuna: hartuta/erreserbatuta · Kargatutako energia mota: berriztagarri bermatua ala ez · Kargaren prezioa	
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak · Nasuvinsa
Kronograma Bisorea 2022ko bigarren lauhilekoan egokitzea. Mantentze jarraitua	

► **OE1.A5. Open Data zerbitzua: kargagailuen egoerari buruzko informazio eguneratua**

Ekintzaren izena Open Data zerbitzua: Nafarroako kargagailuen egoerari buruzko informazio eguneratua	Egungo egoera: ● ○ ○ ○ ○
Laburpena Nafarroako Gobernuak garatutako bisorea Nafarroan kargatutako energiaren kokapen, egoera eta motari buruzko informazio fidagarria eta denbora errealekoa zentralizatzeko ataria izateko asmoarekin sortu da, baita informazio hori hirugarrenei emateko hornitzailea izateko asmoarekin ere. Informazio hori eskuragarri egongo da behar duten hirugarrenentzat, hala nola DGTrentzat (bere bisore nazionalerako) eta interesa duten beste eragile batzuentzat. Arau-ekintzak eta pizgarriak sortuko dira, hainbat agenteren (hala nola toki-erakundeen eta jendeari eskainitako karga-zerbitzua duten enpresen) kargagailuak bisorean jasotzeko, mantentzea eta informazioa bermatzeko irizpide berekin.	
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak · Nasuvinsa
Kronograma Mantentze jarraitua	

► **OE1.A6. Toki-erakundeek kargaguneak era koordinatuan kudeatzea**

Ekintzaren izena Toki-erakundeen kargaguneak era koordinatuan kudeatzea	Egungo egoera: ○ ○ ○ ○ ○
Laburpena Erabilera publikoko kargaguneen kudeaketa eta jarduna funtsezkoa da erabiltzaile-esperientzia gogobetegarria lortzeko. Toki-erakundeetan instalatutako kargaguneen kudeaketa errazteko, Nafarroako Gobernuak kargagune horietan batera jarduteko akordio bat aurreikusiko du. Gainera, OE2.A2 ekintzan ezarritakoaren arabera, toki-erakundeekin eskualdeko operadoreak kargaguneak kudeatzeko, haietan jarduteko eta kargagune horiei buruzko informazioa eskualdeko bisorera eramateko egindako esparru-akordioa amaitu egingo da.	
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak · Nasuvinsa · NUKF · Iruñeko Udala
Kronograma Akordioaren amaiera 2022an. Mantentze jarraitua	



OE2. Erabilera publikoko karga-azpiegitura kohesibo eta fidagarri bat zabaltzea

- ▶ ANFACek egindako inkestaren arabera, 2018. urtean Espainiako kontsumitzaileen % 57rentzat ibilgailu elektrikoaren autonomiarik eza izan zen oztopo nagusia, **egungo autonomia Espainiako hiriko zein hiriarteko desplazamenduen % 95 egiteko nahikoa bada ere.**
- ▶ Hainbat azterlanek erakusten dutenez, merkataritza-, aisia- eta kirol-eremuetako aparkalekuak eta gasolina-zerbitzuguneak dira lekurik onenak kargagune publikoak ipintzeko, batez ere hiriarteko eremuetan. Hala ere, eremu “zuri” batzuetan, alternatibarik eta errentagarritasunik eza desabantaila izan daiteke bertako biztanleentzat mugikortasun elektrikoa baliatzeko aukerari dagokionez. Gainera, turismoaren mendeko eremuen garapena oztopatu dezake.
- ▶ 2021. urtearen amaieran, 7/2021 eta 29/2021 Errege Lege Dekretuak argitaratu ziren. Dekretu horien bidez, kargaguneak instalatu nahi dira salmenta-bolumen jakin bat duten gasolina-zerbitzuguneetan, bizitegikoa ez den erabilera pribatuko eraikinetan (20 aparkaleku-plaza baino gehiago badituzte) eta aparkaleku kolektiboetan. Nafarroako karga-sareak leku horietako batzuk baliatuko ditu sarea osatzeko.
- ▶ Karga publikoetarako soluzioak kapilaritate handiz zabaltzeko eta inbertsio pribatuaren errentagarritasuna bizkortzeko aukera bat kargagune erdipublikoak bultzatzea da. Izan ere, kargaguneak dituzten entitateek publiko orokorrarentzat eskuragarri jar ditzakete kargagune horiek ordutegi jakin batzuetan.



OE2. Erabilera publikoko karga-azpiegitura kohesibo eta fidagarri bat zabaltzea

► EREMU ZURIETAKO JARDUKETAK

- OE2.A1. Eremu zurietan inplementatzea
- OE2.A2. Toki-erakundeen dinamizazioa

► ADMINISTRAZIO-OZTOPOAK


- OE2.A3. Administrazio-izapideen epeak murriztea

► ERABILERA ERDIPUBLIKOA

- OE2.A4. Kargagailu erdipublikoak bultzatzea

► EREMU ZURIETAKO JARDUKETAK

- ▶ Nafarroako Gobernuak zuzeneko jarduketak egingo ditu identifikatutako eremu zurietan kargaguneak instalatzeko, 50 km-ko kargagune bat izateko helburuarekin. Eremu horietan, babes beharko da inbertsioaren errentagarritasunari begira.



► OE2.A1. Eremu zurietan inplementatzea

Ekintzaren izena Identifikatutako eremu zurietan inplementatzeko estrategia	Egungo egoera:		
Laburpena Identifikatutako eremu zurietan kargaguneak instalatzeko kokalekua eta karga-estazioa zehaztea (diseinu teknikoa eta finantzaketa) eta sustatzaile egokia bilatzea. Diseinua 2022ko irailean amaituko da, eta instalazioa, berriz, 2024. urtearen amaieran.			
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak	Nafarroako Gasolina Zerbitzugu- neen Enpresaburuen Elkarte Teletaxi San Fermín NUKF Nasuvinsa Explora sarea Sektore pribatua	
Kronograma Diseinua 2022ko irailean. Instalazioa 2024ra arte			

► OE2.A2. Toki-erakundeen dinamizazioa

Ekintzaren izena Toki-erakundeen dinamizazioa eta haiekiko esparru-akordioa	Egungo egoera:	
Laburpena Lurzoru publikoan lehia publiko bidez edota zuzenean laguntzen bidez kargaguneak instalatzearen inguruko aholkularitza ematea, horren inguruan sentsibilizatzea eta instalazioa erraztea. Eskualdeko operadoreak kargaguneak kudeatu eta erabiltzeko eta kargagune horiei buruzko informazioa eskualdeko bisorera erama-teko esparru-akordioa. Kargaguneak instalatu eta erabiltzeko gida, agirietarako euskarriarekin.		
Arduraduna Nasuvinsa / FNMC	Entitate laguntzaileak	Iruñeko Udala DG IEPES4 Tokiko ekintza-taldeak
Kronograma Amaiera 2023ko ekainean		

► KARGA-AZPIEGITURA INSTALATZEKO ADMINISTRAZIO-OZTOPOAK

► Karga-azpiegituraren instalazioa izapidetzeko epea funtsezkoa da karga-azpiegitura bat abian jartzeko beha-
rezkoa den denboraren zenbaketa orokorrerako. Potentziaren araberakoa bada ere, izapidetzeko eta egikaritzeko
batez besteko aldia 22 hilabetera eta, zenbaitetan, 32 hilabetera irits daiteke.

► Baimenak lortzeko, beharrezkoa izan daiteke hainbat administraziook esku hartzea:

· Toki-erakundeek obra-lizentziak edo jarduera-lizentziak izapidetu behar dituzte.

· Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren edo, hala badagokio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Mi-
nisterioaren baimenak.

· Konexio-puntua lortzeko eta, hala badagokio, banaketa-saretik sarea adarrean sendotzeko energia-banatzailea.

► Identifikatutako atzerapenak direla eta, 29/2021 Errege Dekretuak zehapenak proposatzen ditu energia-banat-
zaileek epeak betetzen ez dituzten kasurako, kontrol-arduraduna eta zehapen-entitatea adierazten ez baditu ere.


► OE2.A3. Administrazio-izapideen epeak murriztea

Ekintzaren izena Azpiegitura instalatzeko administrazio-izapideen epeak murriztea	Egungo egoera:
Laburpena Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren alde zuzeneko administrazio-baimenen epeak murrizteko neurriak hartuko ditu, batez ere potentziarik handieneko kargaguneetarako. Aldi berean, lan-mahai bat sortuko da Nafarroako energia-banatzaile guztiekin, konexio-puntua lortzeko eta, beharrezkoa izanez gero, sarea sendotzeko epeak murrizteko.	
Arduraduna DG IEPES4 Energia, Meategi eta Industria Segurtasuneko Zerbitz	Entitate laguntzaileak · Nafarroako energia-banatzaileak
Kronograma 2022ko ekaina	




► **OE2.A4. Kargagailu erdipublikoak bultzatzea**

Ekintzaren izena Kargagailu erdipublikoak bultzatzea	Egungo egoera:		
Laburpena · Kargagune erdipublikoen ezarpena bultzatzeko aukerei buruzko azterketa juridikoa. · Aukera hori jasotzeko formularioak eta erregistratutako informazioa egokitzea. · Informazioa kargagailuak dituzten enpresei banatzea. · Entitateetan kargagailu erdipublikoak instalatzeko eskuliburua.			
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak	· NUKF · ACAN · Enercluster	
Kronograma Amaiera 2022ko irailean			



OE3. Nafarroan oso karbono-aztarna txikiko turismoa eskaintzea

- Nafarroa eskualde ospetsua da landa-turismoan eta jasangarritasunean egiten duen eskaintzagatik. Sektore horrek 18.000 lanpostu baino gehiago ditu. 2019. urtean, Nafarroak 1,5 milioi bisitari baino gehiago izan zituen. Gaur egun, pandemiaren aurreko datuetara itzultzeko lan egiten da Nafarroa.
- Nafarroako turismo-sektorearen ikuspegia eskualdea helmuga berezi gisa sendotzean datza, eskualdeko in-darrak (naturalak, kulturalak eta gastronomikoak) oinarri hartuta.
- Nafarroako jasangarritasunerako espezializazio adi-menduneko estrategia berrian identifikatutako ardatze-tako bat jasangarritasunari lotutako ibilbideak garatzea da. Ibilbide horiek gure baliabideak baliatuko dituzte, eta ingurumenaren inguruko kontzientziarik handiene-ko Estatuko zein Europako bisitarien eskariari erantzun-go diote.
- Okupazio-maila handiko eta turismo jasangarriari lotutako leku turistikoak ongi identifikatuta daude, eta badaude turistentzako oinarritzko ibilbide batzuk Nafa-rraan. Agenda honetan, lanean dihardugu Nafarroa oso karbono-aztarna txikiko turismoagatik ezaguna izan da-din.





LEKU TURISTIKOETAKO KARGAGUNEAK

Leku turistiko posibleak

Erriberriko Errege Jau-regia	Errege Bardeako Parke Naturala
Xabierko Gaztelua	Leireko monasterioa
Bertizko Parke Naturala	Orreagako Kolegiata
Zugarramurdiko leizeak	Iratiko oihana
Zaraitzu - Nabaskoze	Eunateko Andre Maria
Urederra ibaiaren sor-burua	Arellanoko aztarnategi arkeologikoa
Andelosko aztarnategi arkeologikoa	Rasakok aztarnategi arkeologikoa
Los Arcosko zirkuitua	

Instalatuak

Urbasa kanpina	Urrobi kanpina
Mendigorriako El Moli-no kanpina	Arantza hotela
Maisonave hotela	Aire de Bardenas hotela
Tres Reyes hotela	Rural Suite Hotel Apartamentuak
Sendaviva	



► OE3.A1. Leku turistikoetan kargatzeko aukera

Ekintzaren izena Leku turistikoen inguruko azterketa teknikoa eta inplementazioa	Egungo egoera:
Laburpena Nafarroako 15 leku turistiko nagusietan kargaguneak kokatu eta inplementatzeko azterketa.	
Arduraduna DG IEPES4	Entitate laguntzaileak Nasuvinsa Turismo Zuzendaritza Nagusia
Kronograma Diseinuaren amaiera 2023ko ekainean. Inplemetazioa 2024ra arte.	

► OE3.A2. Oso emisio gutxiko turismo-ibilbideak

Ekintzaren izena Ibilgailu elektrikorako Nafarroako turismo-ibilbideak	Egungo egoera:	
Laburpena Ibilgailu elektrikoetarako Nafarroako zero emisioko turismo-ibilbiderik erakargarrienak zehazteko lan-mahai bat osatzea. Adibidez, ardoaren ibilbidea, ibilbide gastronomikoa, abentura-dirolen ibilbidea, monasterioen ibilbidea eta abar. Turismo Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako turismo-elkarteekin lankidetzan, turismo-ibilbide horiek sustatzea.		
Arduraduna Turismo Zuzendaritza Nagusia	Entitate laguntzaileak	· Nafarroako Ostalaritza eta Turismo Enpresen Elkartea · Nafarroako Bidaia Agentzia Hartzaileen Elkartea · Nafarroako Ostalaritza Enpresa Txikien Elkartea · DG IEPES4
Kronograma Amaiera 2023ko ekainean. Sustapena mugarriak baliatuta		



OE4. Nafarroako karga-azpiegitura-ren sare enblematikoa

- Mugikortasun jasangarri baterako trantsizioa egiteko, automobilgintzaren sektoreko balio-kate osoa eraldatu behar da. Ildo horretan, bateriak funtsezko piezak dira mugikortasuna elektrifikatzeko, energia berriztagarriak sartzeko eta energia mikrosareetan edo energia-komunitateetan (adibidez) kudeatzeko.
- Karga-ekosistema eta ibilgailu elektrikoa bultzatzearen bidez, mugikortasunaren ardatz bihurtu nahi da erabiltzailea. Horretarako, nagusiki efizientziaz monitorizatu eta kudeatzean oinarritutako **negozio-ereduetan berritu** beharra dago.
- Mugikortasun elektrikoan, joera teknologikoa potentziarik handieneko soluzioak garatuko dituzten DC kargagailuak bultzatzera bideratuta dago. Halaber, karga-huben sorkuntzari lotutako joera berritzailea dagoela ikus daiteke. Haien bidez, hainbat kargagune egongo dira estazio berean, eta zenbaitetan energia-iturri desberdinak erabiliko dituzte.
- Era berean, datuen zein energia-fluxuen kudeaketa-sistema adimendunak, ibilgailuaren eta azpiegitura-ren arteko komunikazioa, energiaren norabide biko kudeaketa eta hari gabe eta mugitzen kargatzeko aukera indarra hartzen ari dira azken urteetan.
- Laburbilduz, alderdien bilakaera teknologikoa **heldutasun-puntu desberdinetan dago eta abiadura desberdinetan ari da aurrera egiten**. Nolanahi ere, ikus daitekeenez, kasu guztietan funtsezkoa da lankide guztien arteko **lankidetza**, sinergiak aurkitzeko, elkarrekin lan egiteko eta, era horretan, merkatuan lekua hartzeko.



OE4. Nafarroako karga-azpiegitura-ren sare enblematikoa

OE4.A1. I+G+Bko eskualde-agenteen dinamizazioa


OE4.A2. Proiektu pilotuak ezartzea

► OE4.A1. I+G+Bko eskualde-agentek dinamizatzea

Ekintzaren izena I+G+Bko eskualde-agenteen dinamizazioa	Egungo egoera: ● ○ ○ ○ ○
Laburpena I+G+Bko eskualde-agenteen lan-mahaiak sortzea, sinergiak sustatzeko eta proiektu erakusleak zehazteko. Jarduerak honako hauek izango dira, besteak beste: • Eskualde-agenteen dinamizazioa eta interes komunek gaiei buruzko azterketa • NaVEACeko bideratutako taldeak, industria dinamizatze • Mugikortasun elektriko eta konektatuari buruzko proiektuen azterketa, Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Akitania Berriarekin lankidetzan • Honako alderdi hauen inguruan berritzeko proiektu erakusleak zehaztea: energia berriztagarriekiko hibridazioa, energia-komunitateak, energia-korridore multimodalak, ibilgailuen eta azpiegituren arteko komunikazioa, hari gabe eta mugimenduan kargatzeko aukera eta abar	
Arduraduna Sodena	Entitate laguntzaileak • ACAN • Nafarroako Gasolina Zerbitzuguneen Enpresaburuen Elkarte • Iruñeko Udala • CAT • CEN • Cener • Enercluster • Iruñerriko Mankomunitatea • NAVEAC plataforma • Teletaxi San Fermín • NUP • Naitec
Kronograma Lantaldeen sorkuntza, eta garapen iraunkorra 2024ra arte	

► OE4.A2. Proiektu enblematikoak ezartzea

Ekintzaren izena Proiektu enblematikoak inplementatzea: Finantzaketaren bilaketa eta lan erakuslea	Egungo egoera: ○ ○ ○ ○ ○
Laburpena Proiektuen gaiak zehaztu ondoren, finantzaketa bilatu eta honako proiektu pilotu hauek inplementatuko dira: · S4 proiektu estrategikoetarako I+Gko pizgarriak aztertzea · Eskualdeko, Estatuko eta Europako finantzaketa-aukerak aztertzea · Proiektu erakusleak inplementatu eta monitorizatzea	
Arduraduna Sodena	Entitate laguntzaileak · ACAN · Nafarroako Gasolina Zerbitzuguneen Enpresaburuen Elkarte · Iruñeko Udala · CAT · CEN · Cener · Enercluster · Iruñerriko Mankomunitatea · NAVEAC plataforma · Teletaxi San Fermín · NUP · Naitec
Kronograma Jarraitua 2024ra arte	



6. Agendako jarduketak, identifikatutako botila-lepoen arabera

▼ Botila-lepoak



EROSTEKO ERABAKIA

- Ibilgailu elektrikoaren prezioa
- Elektrizitatearen kostuaren ezegonkortasuna

- Ziurgabetasunaren pertzepzioa kargatzean: autonomia-antsietatea

▼ Agendako jarduketak



EROSTEKO ERABAKIA

- Hainbat sektoreri zuzendutako kontzientziazio-kanpainak
- Erosi eta instalatzeko laguntzak eta fiskalitatea berrikustea
- Enpresetan mugikortasun-planak sustatzea

- Eremu zurietan inplementatzea, sarea osatzeko
- Leku turistikoetan karga ziurtatzea
- Toki-erakundeen dinamizazioa



ERABILGARRITASUNA

- Aplikazioen elkarreragingarritasuna: aktibazioa eta ordainketak
- Karga-sarearen fidagarritasuna
- Kargari buruzko informazioaren eskuragarritasuna



ERABILGARRITASUNA

- Kargaguneak mapan kokatzea
- Kargaguneen egoerari buruzko informazio eguneratua eskuratzeko aukera
- Toki-erakundeekiko esparru-akordioa, kudeaketarako
- Kargagailu publikoak era koordinatuan kudeatzea



ADMINISTRAZIO-OZTOPOAK

- Instalazioa abian jartzeko epeak betetzea
- Dauden kargagune batzuei erabilera erdipublikoa emateko aukera



ADMINISTRAZIO-OZTOPOAK

- Nafarroan diharduten banatzaile elektrikoekiko lankidetza
- Kargagailu erdipublikoen azterketa juridikoa eta sustapena

7. Kronograma

Agendaren kronograma

			2022			2023				2024				Arduradunak
			Q2	Q3	Q4	Q1	Q2	Q3	Q4	Q1	Q2	Q3	Q4	
OE1. Ibilgailu elektrikoa merkatuan sartzea														
OE1.	A1.	Laguntza eta kenkari fiskalak												DG IEPES4
OE1.	A2.	Ibilgailu elektrikoaren inguruko kontzientziazioa												DG IEPES4
OE1.	A3.	Enpresetako mugikortasun-planak												CEN
OE1.	A4.	Kargaguneak mapan kokatzea												DG IEPES4
OE1.	A5.	Open Data: kargagailuen egoerari buruzko informazio eguneratua												DG IEPES4
OE1.	A6.	Toki-erakundeen kargaguneak era koordinatuan kudeatzea												DG IEPES4
OE2. Karga-azpiegitura kohesibo eta fidagarri bat zabaltzea														
OE2.	A1.	Eremu zuriak inplementatzea												DG IEPES4
OE2.	A2.	Toki-erakundeen dinamizazioa												NSV/NUKF
OE2.	A3.	Administrazio-izapideen epeak murriztea												DG IEPES4
OE2.	A4.	Kargagailu erdipublikoak bultzatzea												DG IEPES4
OE3. Nafarroan oso karbono-aztarna txikiko turismoa eskaintzea														
OE3.	A1.	Leku turistikoetan kargatzeko aukera												DG IEPES4
OE3.	A2.	Oso emisio gutxiko turismo-ibilbideak Nafarroan zehar												TURISMO ZN
OE4. Red Navarra de infraestructura de recarga emblemática														
OE4.	A1.	I+G+Bko eskualde-agenteen dinamizazioa												Sodena
OE4.	A2.	Proiektu pilotuak inplementatzea												DG IEPES4
GOBERNANTZA		Gobernantza eta koordinazio orokorra												Sodena
KOMUNIKAZIO		Aurkezteko ekitaldiaren prestaketa (martxoaren 24an)												Sodena

8. Finantzaketa


Agendaren aurrekontua

Kategoria	2022 (EUR)	2023 (EUR)	2024 (EUR)	Total (EUR)
Karga-inbertsioa	75.000 €	75.000 €	75.000 €	225.000 €
Egikaritze-gastuak	115.000 €	35.000 €	35.000 €	185.000 €
Reto VOLta	2.400.000 €	2.400.000 €	2.400.000 €	7.200.000 €
MOVES laguntzak*	3.178.000 €	5.000.000 €	7.000.000 €	15.178.000 €
Kenkari fiskala	794.500 €	1.250.000 €	1.750.000 €	3.794.500 €
PUBLIKOA, GUZTIRA	6.562.500 €	8.760.000 €	11.260.000 €	26.582.500 €
Apalankatutako inbertsio pribatua	10.593.333 €	16.666.667 €	23.333.333 €	50.593.333 €
INBERTSIOA, GUZTIRA	17.155.833 €	25.426.667 €	34.593.333 €	77.175.833 €

* Fondoak handituko direla berresteko dago



9. Gobernantza



Zuzendaritza Nagusia
Nafarroako Gobernua, Garapen Ekonomiko eta Enpre-sarialeko Dep.:

- Agendaren ezarpena oro har gainbegiratzea.
- Beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak zehaztea.

Idazkaritza teknikoa
Sodenaren ardurak:

- Agendako zereginen koordinazio teknikoa.
- Helburu espezifikoaren bilakaeraren jarraipena, bi hilean behin.
- Bilakaerari buruzko txostenak egitea.

Koordinazioa eta jarraipena
DG IEPES4, Enercluster, Acan eta Sodena, honako ardu-ra hauekin:

- Helburu espezifikoaren bilakaeraren jarraipena, bi hilean behin.
- Adierazleen eguneratzea urtean behin argitaratzea.

Helburu espezifikoaren araberako ardu-radunak

- Helburu espezifiko bakoitzari lotutako jarduketak bultzatzea
- Eguneratzeen aurrerapenari buruzko txostena, bi hilean behin
- Adierazleen egoerari buruzko txostena, urtean behin.

10. Erreferentziak

1. https://ec.europa.eu/clima/eu-action/transport-emissions_es
2. <https://www.eea.europa.eu/ims/greenhouse-gas-emissions-from-transport>
3. COM(2019) 640 azkena
4. COM(2020) 562 azkena
5. COM(2020) 789 azkena
6. COM(2021) 559 azkena
7. <https://www.consilium.europa.eu/en/policies/green-deal/eu-plan-for-a-green-transition/>
8. http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Cambio+climatico/Emision+gases.html
9. <https://klina.navarra.es/>
10. <https://www.naveac.com/>
11. <https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/pen2030definitivo20171226comprimido.pdf>
12. <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/plan-director-movilidad-sostenible-navarra-2018-2030>
13. <https://s4.navarra.es>
14. <https://www.transportenvironment.org/discover/does-electric-vehicle-emit-less-petrol-or-diesel/>
15. Nafarroako Energia Balantzea, 2020
16. <https://transicion-energetica.navarra.es/maps/NASUVINSA:mapa-de-puntos-de-recarga-eell-y-esal/about>
17. <https://www.theguardian.com/business/2021/may/09/electric-cars-will-be-cheaper-to-produce-than-fossil-fuel-vehicles-by-2027>



11. Laguntzaileak

Mugikortasun elektriko berdea sustatzeko agenda hau erronka berezia da S4aren barruan eta Nafarroako Gobernua, ACAN eta Enercluster bildu dituen lantalde batean garatu da. Talde hori Sodenak eta Nasuvinsak bideratu dute, Zabalafren laguntza teknikoarekin.



Nafarroako mugikortasun elektrikoa sustatzeko agenda

**Agenda de impulso a la
movilidad eléctrica en Navarra**